

CUADERNOS ORKESTRA

ISSN 2340-7638

 <https://doi.org/10.18543/RTWM2847>

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EKONOMIA ETA GIZARTE DIGITALAK. DESI 2024

LABURPEN EXEKUTIBOA

06/2025 zk.

 <https://doi.org/10.18543/GJEK6776>

Carla Peletier

Ander Sánchez

Susana Franco

James Wilson

CUADERNOS ORKESTRA, 06/2025 zk. Laburpen exekutiboa.

ISSN 2340-7638

 Bilduma: <https://doi.org/10.18543/RTWM2847>

 Koadernoa gaztelaniaz: <https://doi.org/10.18543/YCYM3014>

 Laburpen exekutiboa euskaraz: <https://doi.org/10.18543/GJEK6776>

 Laburpen exekutiboa ingelesez: <https://doi.org/10.18543/NLKL3088>

© Carla Peletier, Ander Sánchez, Susana Franco, James Wilson

© Lehiakortasunerako Euskal Institutua –Deusto Fundazioa

Orkestrari buruz:

Ia 20 urteko esperientzia eta ezagutzarekin, Orkestra-Lehiakortasunerako Euskal Institutua (Deusto Fundazioa) erreferentziazko ikerketa-zentroa da Europan eskualde-lehiakortasunari dagokionez. Euskal Autonomia Erkidegoan ongizate inklusibo eta jasangarriaren zerbitzura dagoen lehiakortasuna bultzatzea du helburu. Horretarako, institutuak ikerketa eraldatzaileko proiektuetan lan egiten du tokiko eta nazioarteko eragileekin, eta erabakiak hartzeko analisi zorrotzak egiten ditu.

➔ Eskuratu gure argitapenak www.orkestra.deusto.es/eu webgunean

Esker ona

Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia eta Gizarte Digitalaren txostena- DESI 2024 Eusko Jaurlaritzako Industria, Energia Trantsizio eta Jasangarritasun Sailaren finantzaketari esker egin da, SPRI-Enpresa Garapenerako Euskal Agentziaren bidez.



Eskerrak eman nahi dizkiogu bereziki Eustat – Euskal Estatistika Erakundeari, berariaz eskatu dizkiogun datuak emateagatik. Era berean, eskertzen dugu Osakidetza emandako laguntza eta Espainiako Gobernuako Telekomunikazioen eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzatik (SETELECO) jasotako informazioa, bakoitzak bere eskumenen eremuan

Laburpen exekutiboa

Aldaketa teknologikoak hain azkar gertatzen ari diren une hauetan, eraldaketa digitalak erronka kritikoak dakartza, bai enpresentzat eta bai gizarteentzat, oro har. Industriaren eta industriarekin lotutako zerbitzu aurreratuen digitalizazioa bereziki garrantzitsua da, ongizate maila handiak sortzeko gaitasuna industria oso produktiboa eta nazioartean lehiakorra izatearen mende baitago.

Europako industria politikak eta Eusko Jaurlaritzaren Euskadi 2030 Industria Plan berriak garrantzi handia ematen diote eraldaketa digitalari. Europako Batzordeak monitorizazio sistema espezifiko bat ezarri du Hamarkada Digitalaren barruan, besteak beste, 27 estatu kideetako Ekonomia eta Gizarte Digitalak (DESI) neurtzeko, arrakastaren funtsezko adierazleen (*KPI-key performance indicators*) panel baten bidez. Panel hori lau dimentsiotan egituratuta dago: i) gaitasun digitalak, ii) azpiegitura digitalak, iii) enpresen eraldaketa digitala eta iv) zerbitzu publikoen digitalizazioa.

Orkestrak Euskal Autonomia Erkidegoko DESI txostena egin du 2017az geroztik, eraldaketa digitala monitorizatzen eta aztertzen eta haren inguruko politikak hobetzen laguntzeko. 2024ko edizio honetan, digitalizazioari dagokionez, lurraldearen egoera irmoa dela berresten da, aztertutako adierazleen % 74an Europako rankingeko lehen hamar tokietan baikaude, eta horietatik hamarretan, lehen bosten artean. Aurreko urtearekin alderatuta, joera positiboa da (adierazleen % 83an gora egin du) eta lurraldeak Europar Batasuneko estatu kideekiko duen kokapenari erreparatuz gero, emaitza ere ona da, % 71n bere posizioa mantendu edo hobetu baitu.

Dimentsioetako bakoitza aztertuta, ondorio hauek atera ditugu:

- **Gaitasun digitalak**

Euskal Autonomia Erkidegoan, giza kapitalaren maila handia da. Handia da, halaber, kapital hori mundu digitelean moldatzeko nola prestatuta dagoen jasotzen duen adierazlearen maila. Lurraldearen egoera positiboa da Europarekin alderatuta, adierazle guztietan batezbestekoaren gainetik baitago. Eta hori horrela izaten ari da urteetan. Hala ere, ahultasun batzuk ere baditu ezaugarri zehatzagoak aztertzen direnean, esate baterako, eduki digitala sortzeko gaitasunak edo IKTetako gradudunak. Eredu horietan, tarteko tokietan dago. Lurraldearen digitalizazioaren oinarri den elementu honetan EAEren egoera sendoa bada ere, Europako bizilagunekin alderatuta lehiakorra izaten jarraitzea da erronka. Izan ere, atzera egin da i) oinarritzko mailatik gorako gaitasun digitaletan, ii) eduki digitala sortzeko gaitasunetan, eta iii) IKTetako espezialistetan, EB-27an aurrerapena azkarragoa izan delako.

- **Azpiegitura digitalak**

EAEko azpiegitura digitalen egoera oso ona da, digitalizazioaren funtsezko bigarren zutabea da hori. EAE Europako rankingeko lehen postuan dago instalazioetarainoko zuntz estaldurari (FTTP) eta banda zabal mugikorraren ezarpenari dagokienez. Beste hiru adierazletan (Internet ezartzea, oso ahalmen handiko sare finkoaren estaldura (VHCN) eta 5G estaldura 3.4-3.8 GHz bandan, zehazki), lehen bost herrialdeen artean dago. Adierazle guztien balioak handitu dira (batena izan ezik, ez dago datu eguneraturik) eta, gainera, guztietan sailkapenean gora egin du edo berdin geratu da (5G espektroan izan ezik, horren balioa Espainiakoa da). Lurraldeak egungo hazkunde ibilbideari eusten badio, 2030erako ezarritako helburuak betetzea espero da eta, horrela, lidergoa sendotuko du.

- **Enpresen eraldaketa digitala**

Euskal enpresek emaitza onak dituzte beren digitalizazio prozesuan, baina indartzeko hainbat arlo identifikatu dira. Adierazle guztiek (Adarbakarrei dagokienak izan ezik) gora egin dute eta gehienek hobetu edo mantendu dute beren kokapena. Hala ere, erabilitako teknologia motetan nolabaiteko dualtasuna ikusten da; izan ere, askoz ere zabalduagoa dago oinarritzat jo daitezkeen teknologien erabilera, esate baterako, informazioaren truke elektronikoa edo bitarteko sozialak. Beste teknologia konplexuago batzuk eta potentzial handiagokoak sartzeari dagokionez (Datuen analitika, Hodeiko konputazio zerbitzuak edo Adimen artifizia), emaitzak onak dira Europako batezbestekoarekin alderatuta, baina enpresa guztien % 50 gainditu gabe. Nabarmentzekoa da, halaber, enpresa txiki eta ertainen merkataritza elektronikoa ez dela Europako mailetara iristen, nahiz eta negozio bolumenaren proportzioak nabarmen egin duen hobera azken urtean.

- **Zerbitzu publikoen digitalizazioa**

Euskal administrazio publikoaren digitalizazioa aztertzeke bi adierazle besterik ez dira erabiltzen. Arlo horren azterketak maiz gertatzen diren paradoxak erakusten dizkigu: alde batetik, adierazle baten balioak okerrera egin du, zehazki, Gobernu elektronikoaren erabiltzaileenak, baina sailkapeneko kokapenari eusten dio; eta, beste alde batetik, Historial mediko elektronikorako sarbidearen adierazlearen balioak hobera egin du, baina sailkapenean atzera egin du. Kasu horietan, interesgarriagoa da adierazle bakoitzaren banakako bilakaerari begiratzea eta bereziki azpimarratzea Gobernu elektronikoaren erabiltzaileen ehunekoak azken urtean behera egin duela eta Historial mediko elektronikorako sarbidean, berriz, bide onetik goazela, 2030erako helburuak lortzeko.

Laburbilduz, Euskal Autonomia Erkidegoa lider da azpiegituren arloko hainbat adierazletan, baina arlo hori sendotzen jarraitzea beharrezkoa da. Gainera, egoera sendoa da, oro har, gaitasunetan, nahiz eta alderdi zehatz batzuk indartu behar diren. Nolanahi ere, Txosteneko azterketatik ondorioztatzen diren erronka esanguratsuenak enpresen eraldaketa digitalari lotuta daude. Zehazki, hiru arlo nagusitako **gomendioak** identifikatu ditugu:

1. **Azpiegitura digital aurreratuak:** Euskal Autonomia Erkidegoak azpiegituren dimentsioan dituen indargune argiak ikusirik, abangoardian egoten jarraitzea da erronka, azpiegitura digital aurreratu berriak sartzeari aurrea hartuko dioten inbertsioak eginez, lidergoari eutsi ahal izateko.
2. **Talentu digitala:** Euskal Autonomia Erkidegoak gaitasunetan duen kokapen orokor ona aprobetxatuz, barne talentuaren etengabeko prestakuntzako ekintzak eta kanpo talentua erakartzekoak indartu behar dira, honako helburu hauek lortzeko: (i) gaitasun orokorren bilakaeraren erritmoari eustea, digitalizazioaren arlo guztietan garapen berrien aurrean inplikatuagoa, parte-hartzaileagoa eta prestatuagoa egongo den gizartea bermatzeko; eta (ii) lurraldean IKTetako gradudunen eta adituen gabeziari aurre egitea.
3. **Enpresek teknologia berriak hartzea:** Euskal enpresetan egokia da oinarritzko teknologia digitalen erabilera. Oinarritzko teknologia horietatik abiatuta, funtsezkoa izango da enpresei teknologia sofistikuagoak erabiltzen hasteko jauzia egiten laguntzea. Teknologia horiek, besteak beste, datuen analitika, hodeiko konputazio zerbitzuak, adimen artifizia edo zibersegurtasuna, oso azkar ari dira eboluzionatzen, eta kritikoak dira euskal industriaren produktibitateari eta nazioarteko lehiakortasunari eusteko.



LEHIAKORTASUNERAKO
EUSKAL INSTITUTUA
DEUSTO FUNDAZIOA

www.orquestra.deusto.es